

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA

GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA ARABAN

Industria eta Energiako Arloa

Iragarkia, Gobernuaren Zaragozako Ordezkariordezaren, Gobernuaren Arabako Ordezkariordezaren eta Gobernuaren Burgosko Ordezkariordezaren Industria eta Energiako Arlo Funtzionalarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita PEol-712 AC proiektuaren aurretiko administrazio-baimenaren eskaera eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena. Proiektu horren barruan sartzen dira Robigus, Quirite, Providentia, Promitor, Recarano, Priamo, Pietas, eta Othar parke eolikoak zein beren ebakuazio-azpiegiturak, Zaragoza, Araba eta Burgos probintzietan

Proiektuak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura arrunta bete behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 71.a) artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1.a) artikuluan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. eta 37. artikuluetan, eta Garraioko, banaketako, merkaturatzeko, hornikuntzako eta energia elektrikoko instalazioak baimentzeko jarduerak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 124. eta 125. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, jendurrean jartzen da PEol-712 AC espedientearen aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaera. Hona hemen espedientearen ezaugarriak:

Eskatzailea: Energía Inagotable de Robigus SL (IFK: B88634761), Energía Inagotable de Quirite SL (IFK: B88634670), Energía Inagotable de Providentia SL (IFK: B88634696), Energía Inagotable de Promitor SL (IFK: B88634704), Energía Inagotable de Recarano SL (IFK: B88634662), Energía Inagotable de Priamo SL (IFK: B88636824), Energía Inagotable de Pietas SL (IFK: B88633706) eta Energía Inagotable de Othar SL. (IFK: B88636816), Forestalia Renovables taldekoak, helbide soziala Madrilen (José Ortega y Gasset kalea 20, 2. solairua, 28.006; Zaragozako jakinarazpenetarako helbidea: Coso kalea 33, 7. solairua, 50.003; telefonoak: 976 308 449 eta 663 484 273; helbide elektronikoa: tramitaciones@forestalia.com. Energía Inagotable de Providentia SL Merkataritza-etxeen ordezkaria izango da.

Eskaeraren xedea: Zaragoza, Araba eta Burgos probintzietako Robigus, Quirite, Providentia, Promitor, Recarano, Priamo, Pietas eta Othar parke eolikoak eta horien ebakuazio-azpiegiturak barne hartzen dituen PEol-712 AC proiektuaren aurretiko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzea.

Organo eskuduna: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusia da aurretiko administrazio-baimena ebazteko organo eskuduna. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskumena duen ingurumen-organoa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa da.

Organo izapidegilea: Gobernuaren Zaragozako Ordezkariordezaren Industria eta Energiako Arlo Funtzionala (Pilar plaza 13, 50071 - Zaragoza); Gobernuaren Arabako Ordezkariordezaren Industria eta Energiako Arlo Funtzionala (Olagibel kalea 1, 01071 - Vitoria-Gasteiz) eta Gobernuaren Burgosko Ordezkariordezaren Industria eta Energiako Arlo Funtzionala (Vitoria-Gasteiz kalea 34, 09004).

Instalazioen deskribapena

Energía Inagotable de Providentia SL. Providentia parke eolikoa, 42 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 7 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Proiektu honek barne hartzen du lotutako ebakuazio-azpiegitura:

- “SET ABARCA 30/400 kV azpiestazioa”, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian.
- “LAAT 400 kV SET Abarca – Abarca Lotunea”, 4,205 kilometroko luze, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian.
- “LAAT 400 kV Miranda Lotunea - SET Forestalia Miranda”, 3,288 kilometro luze, Berantevilla, Armiñón eta Erribera Beitia udalerrietan kokatua, Araba probintzian eta Miranda de Ebro udalerrian, Burgos probintzian.
- “SET Forestalia Miranda 400/220 kV”, Miranda de Ebro udalerrian kokatua, Burgos probintzian.
- “LSAT 220 kV SET Forestalia Miranda - SET Promotores Miranda (SE Seccionadora Miranda)”, 1,240 kilometro luze, Miranda de Ebro udalerrian kokatua, Burgos probintzian.
- “SET Promotores Miranda 220 kV azpiestazioa (SE Seccionadora Miranda)”, Miranda de Ebro udalerrian kokatua, Burgos probintzian.
- “LSAT 220 kV SET Promotores Miranda (SE Seccionadora Miranda) – Set Miranda 220 kV”, 0,433 kilometroko luze, Miranda de Ebro udalerrian kokatua, Burgos probintzian. Aurrekontu zenbatetsia: 64.617.817,14 euro.

Energía Inagotable de Robigus SL. Robigus parke eolikoa, 24 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 4 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurrekontu zenbatetsia: 21.044.560,92 euro.

Energía Inagotable de Quirite SL. Quirite parke eolikoa, 30 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 5 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurreikusitako aurrekontua: 25.338.104,59 euro.

Energía Inagotable de Promitor SL. Promitor parke eolikoa, 42 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 7 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurrekontu zenbatetsia: 36.474.229,36 euro.

Energía Inagotable de Recarano SL. Recarano parke eolikoa, 48 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 8 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurrekontu zenbatetsia: 40.065.341,77 euro.

Energía Inagotable de Priamo SL. Priamo parke eolikoa, 42 MW-koa, Tauste udalerrian kokatua, Zaragoza probintzian. 7 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametrokoak. Aurrekontu zenbatetsia: 36.053.010,02 euro.

Energía Inagotable de Pietas SL. Pietas parke eolikoa, 33,5 MW-koa, Tauste eta Ejea de los Caballeros udalerrietan kokatua, Zaragoza probintzian. 6 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurrekontu zenbatetsia: 35.130.512,34 euro.

Energía Inagotable de Othar SL. Othar parke eolikoa, 48 MW-koa, Zaragoza probintziako Tauste eta Ejea de los Caballeros udalerrietan kokatua. 8 SG 6.0-170 aerosorgailuk osatzen dute, 135 metroko altuera abatzeko eta 170 metroko errotore-diametroa dutenak. Aurrekontu zenbatetsia: 43.861.667,42 euro.

Ebakuazio-azpiegituraren zati bat Abarka Lotunetik Miranda Lotunera arte partekatuko da. Partekaturiko azpiegitura hori Jundiz 220 Klusterraren Pfof-753 AC espedientean izapidetzen da ("Tara" planta fotovoltaikoa).

Aipatutako parke eolikoek garraio-sarearen sarbide-baimena dute Miranda 220 kV azpies-tazio elektrikoan, Red Eléctrica de España SAren jabetzakoa, 2021eko otsailaren 19an emana.

Helburua: Energia sortzea merkatutzeko.

Bai proiektu honen aurretiko administrazio-baimena, bai ingurumen-inpaktuaren ebalua-zio-prozedura arrunta izapidetzea (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Mi-nisterioaren eskumenekoak dira horiek onartzea) jendaurrean jarri behar dira eta batera egin behar dira proiektuaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren jendaurreko informazioa, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Hori guztia argitara ematen da guztiek jakin dezaten eta proiektua, ingurumen-inpaktuaren azterlana eta, beraz, agiri tekniko eta ingurumen-dokumentu guztiak aztertu ahal izan daitezen, bai Gobernuaren Zaragozako Ordezkariordeztaren, Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztaren, bai Gobernuaren Burgosko Ordezkariordeztaren Industria eta Energia Arlo Funtzionalan. Ho-rretarako, aurretiko hitzordua eskatu behar da edo esteka honetan:

https://www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/aragon/proyectos-ci/proyectos.html

Arlo horietako erregistro orokorrean egoki irizitako alegazioak idatzizko euskarri fisikoan aurkeztu ahal izango dira, edo Estatuko Administrazio Orokorraren <https://rec.redsara.es> erre-gistro elektronikoen bidez, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hogeita hamar egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta dau-dela Administrazio Publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera administra-zio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, edozeinek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 5ean

Industria eta Energiako Arloko zuzendari ordezkoa Gobernuaren Ordezkaritza Araban
ENDIKA URTARAN MOTOS